



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015-01-13

BILERA ZENBAKIA: 16

ORDUA ETA LEKUA: UDALETXEAN 7,30TAN


PARTEHARTZAILEAK: 4 EMAKUME ETA GIZONEZKO 1

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Urte berriari begira plangintza orokorra zehazten aritu gara, gure lehentasunak zein diren etab. Lanerako hiru ildo finkatu ditugu zehazki : herriko adinekoekin harremana sendotu, bolondresen gaia landu eta denboraren bankuaren gaiari heldu. Hiru gaiak elkarrekin lantzekoak direla erabaki da eta urtean zehar zehaztuko dugu nola aurrera eraman lan hau.
2. Horretarako, aurretik eginak dauden lanak bilatuko ditugu ea lagungarri zaizkigun, adibidez, « banco del tiempo »ren inguruan egindako ausnarketaren bat.
3. Aurreko bileran erabaki zen bezala, Berdintasunaren gaia herri mailan lantzen jarraitzea da gure asmoa, ekintza konkretuak bultzatuz orain arte bezala. Aurreko urtean Aldundiaren babesarekin Berdinbidean proiektuan parte artu genuen, baina egindako ekintzak ez zuten arrakasta handirik izan eta aurten gai hau lan taldetik bultzatzea erabaki da, gazteekin, adinekoekin, eskolarekin, eta abarrekin lanketa desberdinak eginez.
4. Dokumental eta pelikulen zikloa ere antolatzeko asmoa badago. Urrengo bileran egingo da honen plangintza.
5. Aipatu behar da ere, lan taldetik Udalari egin zitzaion diru laguntza eskaera aurrekontuetan onartu dutela. Beraz, Ongizateko taldeak 2015erako 3.000€ko diru poltsa bat izango du, ekintzak aurrera eramateko eta larrialdiei aurre egiteko.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
“Banco del tiempo” ri buruzko informazioa jaso	Otsailak 10	Maidier
Herriko medikuarekin adinekoen informazioa jaso	Otsailak 10	Mertxe
Pelikula desberdinen lista bat proposatu	Otsailak 10	denok



HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Otsailaren 10ean egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Pelikulen zerrenda aztertu eta datak zehaztu
- Adinekoekin harremana sendotzearen gaiarekin jarraitu
- "Banco del tiempo" delakoaren informazioa aztertu
- Plangintza orokorra zehaztu